

FAMILIEK IKASTETXEAN DUTEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERLANA

Familiendako galde-sorta

Autonomia erkidegoa:

Ikastetxea:

Ikasmaila:

Galde-sorta hau Estatuko Eskola Kontseiluak eta zure autonomia erkidegoko eskola kontseiluak sustatu dute eta haren xedea da zuen seme-alabak eskolaturik dauden ikastetxeetan familiek zer nola parte hartzen duzuen jakitea.

Zure erantzunak oso garrantzitsuak dira lagungarriak izan daitezkeelako parte-hartze horren kopurua eta kalitatea ezagutzeko eta hobetzeko eta, horrekin batera, ikasleen hezkuntza osotua erdiesteko. Hori dela-eta, erregutzen dizut egindako galdera guztiei zintzotasunez erantzutea. Jakizu isilpekotasuna bermaturik dagoela.

Ikastetxean haur bat baino gehiago eskolaturik baduzu, bete ezazu galde-sorta ikastetxetik ekarri dizun semearen edo alabaren errealitatea erreferentzia modura harturik.

Erregutzen dizugu, galde-sorta bete ondoren, zure semearen edo alabaren tutoreari itzultzea, ahal dela astebete baino lehen.

Mila esker zure laguntzagatik!

Marka ezazu gurutze batez, zure ustez, ondoko gai bakoitzeko edukia zenbatetan gertatzen den.	Inoiz ez	Batzuetan	la beti	Beti
1. Tutoretza saioetara joaten naiz nire semearen edo alabaren tutoreak hitzordua ematen didanean				
2. Tutoretza saioak eskatzen ditut ikasturtean zehar				
3. Gurasoek tutorearekin taldean egindako bileretara joaten naiz				
4. Tutorearekin hitz egiten dut harreman informaletan, ikastetxetik ateratzean edo han sartzean				
5. Bilerak izaten ditut tutorea ez den gainerako irakasleekin				
6. Ikastetxeko zuzendaritza taldeko kideekin bilerak edo elkarrizketak izaten ditut				
7. Ikastetxeko orientatzailearekin elkarrizketak izaten ditut				
8. Ikastetxekoekin honela komunikatzen naiz:				
8.1. Bertaratuz, zuzenean				
8.2. Zeharka, telefonoz, SMS bidez, posta elektronikoz, etab.				
8.3. Komunikatzeko beste modu batzuk.				
9. Ikastetxekoekin ditudan harremanetan, aritzen gara nire seme-alabei buruzko gai hauen gainean:				
9.1. Diziplina, bertaratze-hutsegiteak edo antzekoak				
9.2. Ikaskuntzaren jarraipena: alderdi positiboak eta zailtasunak				
9.3. Ikaslearen garapen pertsonal eta sozialari, gaitasunei, zaletasunei edo interesei buruzko alderdiak				
9.4. Bestelako gaiak				
10. Ikastetxekoekin izaten ditudan bilerak egokiak iruditzen zaizkit.				
11. Nire semeari edo alabari dagokionez ikastetxean hartzen diren erabakiekin bat egiten dut eta errespetatzen ditut.				
12. Zenbateraino daude eskuragarri eta komunikaziorako prest ondokoak?:				
12.1. Tutorea				
12.2. Tutorea ez den gainerako irakasleak				
12.3. Orientatzailea				
12.4. Zuzendaritza taldea				

13. Tutorearekiko harremanetan, parte hartzen duzu edo parte hartu duzu ikasgela/ikastaldeko familien ordezkari moduan?

BAI EZ

Zure semearen edo alabaren ikastetxeko edozein profesionalekin egindako bilerei dagokienez, adierazi gurutze batez ondokoan arteko zailtasun bat edo gehiago

14. Ezin naiz bileretara joan lehentasun handiagoko familiako edo laneko eginbeharrez gainzamatua egoteagatik.....

15. Ikastetxeko irakasleekin egin beharreko bileretara joateak beldurtzen nau, ez nago eroso edo ez naiz ausartzen.....
16. Noizbait izan dut liskarren bat nire seme-alaben irakasleren batekin
17. Laneko ordutegiak joatea galarazten dit eta kasua larria denean soilik eskatzen dut lan-baimena
18. Beste zailtasun batzuk

Esan zein den zure parte-hartzea, zure semea edo alaba eskolaturik dagoen ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan.	Ez dakit ikastetxeak antolatzen dituen	Ezagutzen ditut	Joaten naiz	Kolaboratzen eta parte hartzen dut
19. Gurasoendako prestakuntza jardueretan (guraso eskolak, hedapenerako solasaldi edo hitzaldiak, etab.)				
20. Ikastetxean sortutako lan batzordeetan (ziklokoak, bizikidetzakoak, azpiegituretakoak, dirua biltzekoak, etab.)				
21. Ikastetxeari laguntza emateko jardueretan: ikastetxe barnekoetan, hala nola, ipuin kontalarien saioretan, irakurketa laguntzekoetan, solasaldietan, lanbide mailako informazioa ematekoetan, berariazko lantegietan..., eta ikastetxetik kanpokoetan, hala nola, museoetara egindako bisitaldietan, antzezlanetan, erakusketetan, txangoetan...				
22. Bestelako jarduerak				

Aipatutako jardueretan, adierazi zure ustez garrantzitsuak diren zailtasunak, jarduera horietan parte hartzeari dagokionez. Marka ezazu/itzazu gurutze batez hautatutako aukera/aukerak

23. Ez dut zailtasunik ikusten
24. Ikastetxeak ez du parte-hartzea laguntzen
25. Ez zaizkit interesatzen
26. Ezin naiz bileretara joan lehentasun handiagoko familiako edo laneko eginbeharrez gainzama-tua egoteagatik
27. Ez nago parte hartzeko gaitua
28. Beste zailtasun batzuk

Adieraz ezazu gurutze batez zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin 1etik 10eko eskala batean (1ak esan nahi du ez zaudela batere ados eta 10ak, berriz, adostasunik handiena duzula).										
29. Ikastetxeko kide sentitzen naiz; neurea den zerbait balitz bezala hartzen dut	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
30. Ikastetxeko talde batek kirol, lehiaketa... batean parte hartzen badu, huraxe da nire taldea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
31. Pozik nago nire semeak edo alabak ikastetxean jasotzen duen hezkuntzarekin	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
32. Uste dut nire semearen edo alabaren etorkizuna jasotzen ari den hezkuntzaren arabera zure araberakoa izan dela	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



JUNTA DE PARTICIPACIÓN DE
LOS CONSEJOS ESCOLARES
AUTONÓMICOS

33. Zein uste duzu izanen dela zure semeak edo alabak lortuko duen ikasketa-mailarik handiena?

- Nahitaezko eskolatzea
- Erdi mailako heziketa zikloa
- Batxilergoa edo goi mailako heziketa zikloa
- Unibertsitateko ikasketak

34. Nire semearen edo alabaren orientabide akademiko eta profesionala ukitzen duten erabakietan, ikastetxea prest dago gurasoek esandakoa entzuteko?

BAI EZ

Ikastetxeko guraso elkarteari dagokionez, erantzun galdera hauek.	Bai	Ez
35. Nire semea edo alaba eskolaturik dagoen ikastetxeko guraso elkarte bateko kide naiz edo izan nintzen		
36. Ikastetxeko guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kide gehienak ezagutzen ditut		
37. Ikastetxeko guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kide naiz edo izan nintzen		
38. Ikastetxeko guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kide izateko prest egonen nintzateke		

Esan zein den zure parte-hartzea, zure semea edo alaba eskolaturik dagoen ikastetxeko guraso elkarteak antolatzen dituen jarduerari dagokienez.	Ez dakit guraso elkarteak antolatzen dituen	Ezagutzen ditut	Joaten naiz	Kolaboratzen eta parte hartzen dut
39. Biltzar orokorretan edo bileretan				
40. Gurasoen prestakuntzarako jardueretan, jarduera soziokulturaletan, bizikidetzakoetan, etab.				
41. Gizarte-ekintzako edo laguntza-ekintzako jardueretan, elkartasun kanpainetan, jarduera ekologikoetan edo ingurumenekoetan, etab.				
42. Bestelako jardueretan				

Guraso elkartean duzun parte-hartzeari dagokionez, adierazi gurutze batez, zure ustez, zer zailtasunek galarazten duten parte-hartze hori.

43. Ez dut zailtasunik ikusten
44. Ez dakit zer den guraso elkartea
45. Ez dut guraso elkartean parte hartzeko interes berezirik
46. Ez nago ados guraso elkartea antolatzeko moduarekin edo haren funtzionamenduarekin
47. Ez naiz gai
48. Beldurtzen naiz edo ez naiz ausartzen guraso elkartean parte hartzen
49. Nire ordutegia ez da bateragarria
50. Beste zailtasun batzuk

Ikastetxeko eskola kontseiluari dagokionez:	Bai	Ez
51. Parte hartzen dut ikastetxeko eskola kontseiluko hauteskundeetan		
52. Ezagutzen ditut ikastetxeko eskola kontseiluko familien ordezkariak		
53. Ezagutzen ditut familien ordezkari ez diren eskola kontseiluko gainerako kideak		
54. Ikastetxeko eskolako kontseiluko kide naiz edo izan nintzen		
55. Ikastetxeko eskola kontseiluko kide izan nintzateke		
56. Ezagutzen ditut eskola kontseiluetako gurasoen ordezkarien eginkizunak		
57. Izaten dut aski informazio eskola kontseiluko hauteskunderi buruz		
58. Eskola kontseiluko ordezkari izateko hauteskundeetan hautagaiei buruz jasotzen dudana informazioa egokia izaten da		

Ikastetxeko eskola kontseiluan ordezkariak hautatzerakoan duzun parte-hartzeari dagokionez, adieraz ezazu gurutze batez, zure ustez, zein diren daukazun zailtasunak.

- 59... Ez dakit zer den ikastetxeko eskola kontseilua
- 60... Oro har, informazioa zabaltzearen gabezia (hauteskundeak noiz egingen diren, hautagaiak ez ezagutzea, hautagai horiek ikastetxean duten benetako eginkizuna, etab.)
- 61... Ikastetxeko zuzendaritza taldeak ez du parte-hartzea sustatzen (prozeduren zurruntasuna, bozketarako ordutegiak, etab.)
- 62... Ez daukat ikastetxeko eskola kontseiluko hauteskundeetan parte hartzeko interes berezirik
- 63... Ikastetxeko eskola kontseiluko ordezkari izateko hautagai aurkezteari beldur diot eta ez naiz ausartzen (ez daukadalako hitz egiteko erraztasunik, zaila zaidalako komunikatzea, problemak ebaztea, erabakiak hartzea eta negoziatzea, etab.)
- 64... Beste zailtasun batzuk

Marka ezazu gurutze batez, zure ustez, ondoko baieztapen bakoitzeko edukia zenbatetan gertatzen den.	Inoiz ez	Batzuetan	la beti	Beti
65. Hezkuntza helburuak ikastetxearekin partekatzen ditut gero etxean garatu ahal izateko				
66. Nire semearekin edo alabarekin ikasketen gainean hitz egiten dut				
67. Ezagutzen dut nire semeak edo alabak nola antolatzen duen ikasteko denbora				
68. Badakit nire semea edo alaba eskolara joaten den edo ez				
69. Gure familian joan ohi gara zinemara, antzerkira, museoetara, bidaietara, kontzertuetara, erakusketetara eta abarrera				
70. Badakit nire semeak edo alabak zer jarduera mota egiten duen aisialdian				
71. Nire semeak edo alabak curriculumez kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak egitearen alde nago, hala nola, hizkuntzak, informatika, musika, dantza, kirola, akademiak, etab.				
72. Nire semeak edo alabak ikasketetan duen autonomia eta erantzukizuna sustatzen ditut				
73. Nire semeari edo alabari esaten diot ordenagailuak eta mugikorrak modu arduratsuan erabili behar dituela				
74. Etxean ikasteko giro ona sustatzen dut (ikastera motibatuz, ahal dela hotsik ez eginez, ikasteko toki egokia jarritz, etab.)				
75. Nire semeari edo alabari esaten diot zer itxaropen dugun harengan				
76. Ikastetxetik kanpoko elkarteetan parte hartzen dut (kulturalak, kirolekoak, erlijiosoak, politikoak, etab.)				

Zure semeak edo alabak etxeko lanak egiten dituenean, jakin nahi dugu normalean nork laguntzen, bideratzen edo gainbegiratzen duen bere lana. Adierazi behar d(ir)en aukera(k).

77. Inork ez du laguntzen
78. Amak edo aitak
79. Familiako beste kide batzuek
80. Zaintzaileak edo irakasle partikularrak
81. Beste batzuek

Adieraz ezazu gurutze batez zein diren zure semearen edo alabaren hezkuntza prozesuan zu inplikatzera baldintzatzen duten arrazoiak edo zailtasunak (esan zure ustez egokiak diren guztiak).

82. Nire semea edo alaba beregaina da; ez du inork laguntzerik behar
83. Ez dut uste nire semeak edo alabak eskolan zer ikasten duen jakin behar dudarik
84. Zaila da nire semeak edo alabak ikasten duena eta horrek ez dit laguntzen uzten
85. Ez dut hizkuntza behar adina ezagutzen
86. Ez dut astirik
87. Nire semeak edo alabak ez du nahi guk laguntzea
88. Ezin diot eskola laguntzarik eman (klase partikularrak) zailtasun ekonomikoak ditudalako
89. Bestelako arrazoi eta zailtasunak

Esan ezazu nor ari den galde-sorta hau betetzen "Beste batzuk" hautatzen baduzu, esan nor den.

90. Aita Ama Biak Beste batzuk

Erantzun zure familia unitateari buruzko galdera hauek.

91. Esaguzu familiaren etxebizitzan nor bizi den. "Beste batzuk" hautatzen baduzu, esan nor diren:
Aita, ama eta semea(k) edo alaba(k) Ama eta semea(k) edo alaba(k)
Aita eta semea(k) edo alaba(k) Beste batzuk
92. Amaren adina:
93. Aitaren adina:
94. Zenbat seme-alaba dituzue?
95. Galde-sorta hau ekarri dizun semea edo alaba zenbatgarrena da?
96. Familiaren etxebizitzatik ikastetxerainoko joan-etorriak, nola egiten dira (esan ohikoena):
Oinez Norberaren ibilgailuan Eskola garraioan Garraio publikoan
97. Zenbat denbora behar du zure semeak edo alabak etxetik ikastetxera joateko?
98. Familiaren etxebizitzan zenbat lagun bizi zarete?
99. Zure etxebizitzak zenbat gela (logela modura erabilitakoak) ditu?
100. Galde-sorta ekarri dizun semea edo alaba, Espainian jaiotakoa da?
BAI EZ

101. Ez bada Espainian jaio, non jaio zen?

- Mexikon, Ertamerikan, Hegoamerikan edo Kariben
- Europa mendebaldeko herrialde batean
- Europa ekialdeko herrialde batean
- Asiako herrialde batean
- Magrebeko herrialde batean
- Sahara hegoaldeko herrialde batean
- Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan
- Ozeanian

102. Zure semea edo alaba ez bada Espainian jaio, etorri zenean zenbat urte zituen?

103. Ama Espainian jaiotakoa da?

BAI EZ

104. Ama ez bada Espainian jaio, non jaio zen?

- Mexikon, Ertamerikan, Hegoamerikan edo Kariben
- Europa mendebaldeko herrialde batean
- Europa ekialdeko herrialde batean
- Asiako herrialde batean
- Magrebeko herrialde batean
- Sahara hegoaldeko herrialde batean
- Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan
- Ozeanian

105. Aita Espainian jaiotakoa da?

BAI EZ

106. Aita ez bada Espainian jaio, non jaio zen?

- Mexikon, Ertamerikan, Hegoamerikan edo Kariben
- Europa mendebaldeko herrialde batean
- Europa ekialdeko herrialde batean
- Asiako herrialde batean
- Magrebeko herrialde batean
- Sahara hegoaldeko herrialde batean
- Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan
- Ozeanian



JUNTA DE PARTICIPACIÓN DE
LOS CONSEJOS ESCOLARES
AUTONÓMICOS

107. Gaur egun aitak eta amak zer egiten dute?

	Aita	Ama
Lan egiten du enpresa batean edo administrazioan; lan egiten du autonomo modura edo badu enpresa bat		
Ez du lan egiten langabezia dagoelako		
Ez dut lan egiten erretiroa hartuta dagoelako		
Ez du sekula etxetik kanpo ordaindutako lan batean jardun (etxeko lanez arduratzen da)		

108. Zein da aitaren eta amaren okupazioa, gaur egun lanik egiten ez badute ere?

	Aita	Ama
Zuzendariak eta kudeatzaileak (Zuzendari exekutiboak, administrazio publikoko zuzendariak eta botere exekutiboko eta legegintza-kidegoetako kideak; zuzendari-administratzaileak eta merkataritza-zuzendariak; ekoizpeneko eta eragiketako zuzendariak eta kudeatzaileak; hotel, jatetxe, saltoki eta bestelako zerbitzuetako kudeatzaileak)		
Profesional zientifiko eta intelektualak (Zientzietako eta ingeniartzako profesionalak; osasun arloko profesionalak; irakaskuntzako profesionalak; administrazio publikoaren eta enpresen antolaketako espezialistak; informazioaren eta komunikazioaren teknologiko profesionalak; zuzenbideko, gizarte zientzietako eta kulturako profesionalak)		
Erdi mailako teknikariak eta profesionalak (Zientzietako eta ingeniartzako erdi mailako profesionalak; osasun arloko erdi mailako profesionalak; finantza eta administrazio eragiketako erdi mailako profesionalak; zerbitzu juridiko, sozial, kultural eta antzekoetako erdi mailako profesionalak; informazioaren eta komunikazioen teknologiko teknikariak)		
Laguntza administratiboaren arloko langileak (Bulegariak; herritarrekin zuzeneko harremana duten langileak; kontabilitate arloko langileak eta materialen erregistroko arduradunak; laguntza administratiboaren arloko bestelako langileak)		
Zerbitzuetako langileak eta saltoki eta merkatuetako saltzaileak (Zerbitzu pertsonaletako langileak; saltzaileak; zainketa pertsonaleko langileak; babes zerbitzuetako langileak)		
Nekazariak, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako, oihaneko eta arrantzako langileak (Nekazariak eta merkaturako diren nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetako langile gaituak; oihaneko langile gaituak, arrantzaleak eta ehiztariak; nekazaritza eta abeltzaintzako langileak; arrantzaldeak, ehiztariak eta iraupeneko biltzaileak)		
Arte mekanikoetako eta bestelako lanbideetako ofizialak, langileak eta artisauek (Eraikuntzako ofizialak eta langileak, elektrikariak izan ezik; metalurgiako, eraikuntza mekanikoko eta antzekoetako ofizialak eta langileak; arte grafikoetako artisauek eta langileak; elektrizitatean eta elektroteknologian espezializatutako langileak; elikagaien prozesamenduko		

eta jantzigintzako langileak eta ofizialak, ebanistak, bestelako artisauak eta antzekoak)		
Instalazio eta makinetako langileak eta mihizatzaileak (Instalazio finkoetako eta makinetako langileak; mihizatzaileak; ibilgailuen gidariak eta ekipo astun mugikorren langileak)		
Oinarrizko lanbideak (Garbitzaileak eta laguntzaileak; nekazaritza eta abeltzaintzako, arrantzako eta oihaneko peoiak; meatzaritza, eraikuntza, manufaktura-industria eta garraioko peoiak; elikagaien prestakuntzako laguntzaileak; zerbitzuetako eta antzekoetako saltzaile-ibiltariak; hondakin-biltzaileak eta bestelako oinarrizko okupazioak)		
Militarren lanbideak (Indar armatuetako ofizialak; indar armatuetako subofizialak; indar armatuetako bestelako kideak)		

109. Zein da aitaren eta amaren ikasketa-maila?

	Aita	Ama
Lehen Hezkuntza bukatu gabe		
Lehen Hezkuntza bukatuta		
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH edo antzekoa)		
Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntza (Batxilergoa edo erdi mailako Lanbide Heziketa)		
Goi mailako Lanbide Heziketa		
Diploma		
Lizentzia, Arkitektura edo Ingeniaritza		
Doktoregoa		
Bestelako ikasketak		

Hurrengo zerrendatik, markatu zer daukazu etxean.

- 110. Ikasmahai bat
- 111. Logela bat zure seme edo alabarendako
- 112. Toki lasai bat ikas dezan
- 113. Ordenagailu bat eskura zure semeak edo alabak etxeko lanak egin ditzan
- 114. Hezkuntzako softwarea
- 115. Interneteko lotura
- 116. Literatura klasikoa
- 117. Poesia liburuak
- 118. Arte liburuak
- 119. Laguntza liburuak etxeko lanetarako
- 120. Hiztegi bat
- 121. Erreferentziako liburu teknikoak
- 122. Ontzi-garbigailua
- 123. Telefono mugikorra
- 124. Telebista
- 125. Autoa



126. Zenbat telefono mugikor daude etxean?

127. Zenbat telebista daude etxean?

128. Zenbat ordenagailu daude etxean?

129. Zenbat auto daude etxean?

130. Gutxi gorabehera, zenbat liburu daude etxean?

0-10 liburu

11-25 liburu

26-100 liburu

101-200 liburu

201-500 liburu

500 liburu baino gehiago

131. Zure semeak edo alabak batez beste zer nota atera zuen joan den ikasturtea bukatutakoan?

Gutxiegia (0-4,9)

Nahikoa (5-5,9)

Ongi (6-6,9)

Oso ongi (7-8,9)

Bikain (9-10)

132. Aurreko ikasturtean, ekainean, zure semeak edo alabak gainditu gabe utzi zuten irakasgairien bat?

BAI

Zenbat?

EZ

133. Adierazi gurutze batez zure semeak edo alabak iazko ikasturtean batez beste zer nota atera zuen hurrengo taulan ageri diren irakasgaietan:

	Matematika	Gaztelania	Hizkuntza koofiziala*
Gutxiegia			
Nahikoa			
Ongi			
Oso ongi			
Bikain			

*Adierazi behar den hizkuntza koofizialaren izena, halakorik balego.

134. Zure semeak edo alabak errepikatu du inoiz ikasmailaren bat?

BAI EZ

Errepikatu badu, adierazi behar diren aukera guztiak:

- 135. Lehen Hezkuntzako 2.a
- 136. Lehen Hezkuntzako 4.a
- 137. Lehen Hezkuntzako 6.a
- 138. DBHko 1.a
- 139. DBHko 2.a
- 140. DBHko 3.a
- 141. DBHko 4.a